

## CULTURA

# Klis-Klasikoak bilduma berria, haur eta gazte literaturaren altxorren kutxa

Euskarazko harribitxiak berpizteaz gain, literatura unibertsaleko klasikoak euskarara ekarriko ditu. Lau libururekin abiatu den ekimena Galtzagorri elkarteak eta Eusko Jaurilaritzak jarri dute martxan

26.11.11 - 02:23 - NEREA AZURMENDI | DONOSTIA.

0 Comentarios | 0 0

0 votos

'Kariñoa falta... Kariñoa falta da etxe honetan'. Bere garaian (1984. urtean) Mariasun Landak idatzitako eta Jon Zabaletak ilustratutako 'Txan fantasma' ipuina maitatu zuten askok aspaldi zeukaten beste mila oroitzapenen artean galduta esaldia eta hori hartzen zuen azal laranja kolorekoa. Beste horrenbeste esan daiteke 'Maria Goikoak batbirulau!' garai bertsuan Anjel Lertxundik eta Antton Olariagak hiruzpalau liburukitan gauzatu zuten esperimendu zoragarriaz. Edo Gregorio Muro Harriet gidoigilearen eta Francisco Frutuoso marrazkilariairen elkarlanetik sortutako 'Indianoa' lanaz, 1985ean 'Habeko Mik' aldizkarian argitaratua eta album bilakatua.

Heldu nostalgiko bilakatu diren orduko haurren zein gaurko neska-mutikoen gozamenerako (harrigarria da zein ondo zehartatu dituzten hamarkadak hiru lan horiek), berpiztu egin dira denak, Eusko Jaurilaritzaren eta Galtzagorri elkartearen arteko Klis-Klasikoak ekimenari esker. Jatorrizko formatua eta itxura mantenduz berpiztu ere, proiektu berri baten baitan berrargitaratu dituztela adierazten duen logotipo txiki bat eta egileen hitzaurre berriak baitira liburutegi eta liburu-dendetan eskuragarri egongo diren liburuei egin zaizkien aldaketa bakarrik.

Aspaldi agortuta zeuden euskarazko lan bikainen ondoan, Carlo Collodi italiarraren 'Pinotxoren abenturak' heldu da, klasikoetan klasikoa, Jokin Mitxelena edizio honetarako propio egindako ilustrazioz edertua eta Koldo Bigurik jatorrizko bertsioetik abiatuta euskaratua.

Ibon Egaña literatur kritikariak aurkezpenean azaldu zuenez, datorren urtean segida izango duen proiektuak «euskarazko haur eta gazte literaturan sumatzen zen gabezi handi erantzuten dio», eta helburu nagusia du «haur eta gazteentzako euskarazko liburu onak, kalitatezkoak egitea da, historian zehar ezinbestekoak bihurtu direnak gurera ekarri eta modu egokian plazaratzea». Aurreneko entregan, bete-betea asmatu dute.

Eragile nagusiez gain, enpresa eta profesional askok hartu dute parte «haur eta gazte literaturaren altxorren kutxa» izan nahi duen proiektu berrian: Elkar, Alberdania, Erein eta Igela argitaletxeek; lanak hautatzeaz arduratu den batzordeak; liburu guztien diseinu-zuzendaritzaz arduratu diren Antton Olariagak eta Elena Odriozolak; zuzenketa lanak egin dituen Mitxel Muruak; egileek...

### LIBURUAK

**'Txan fantasma':** Mariasun Landak idatzia eta Jon Zabaletak ilustratua (Elkar, 1984).

**'Mari Goikoak batbirulau!':** Anjel Lertxundik idatzia eta Antton Olariagak ilustratua. (Erein, 1984-86).

**'Indianoa':** Gregorio Muro Harriet eta Francisco Frutuoso. 1985.ean 'Habeko Mik'-en argitaratu zen.

**'Pinotxoren abenturak':** Carlo Collodi (1882).



### PUBLICIDAD

[De iBanesto: sin gastos, ni comisiones, y con la confianza de un gran Banco.](#)  
[Cuenta NARANJA de ING DIRECT: 3,3% TAE y después sigue ganando todos los meses. Sin comisiones, ninguna.](#)  
[La cuenta NÓMINA de ING DIRECT te devuelve dinero cada mes.](#)

### TAGS RELACIONADOS

Klis, klasikoak, bilduma, berria, haur, gazte, literaturaren, altxorren, kutxa

### ANUNCIOS GOOGLE

#### San Sebastian apartments

Rent your holiday home. Great location. Find yours. iberorent.es

#### Car Insurance: Free Info

Insurance Advice, Tools, Articles & Quotes. Find What's Best for You. autos.yahoo.com

#### Recarga Para España

Sorpresa a Tu Familia y Amigos. Ellos Estarán Muy Agradecidos. www.AloEspana.com

### diariovasco.tv

VIDEOS DE CULTURA más videos [+]



## Fournitures horlogères

montres et pièces détachées neuf & occasions toutes marques  
www.watchesulike.com

WT 0 0 Compartir Recommend

0 Comentarios | 0 votos

Para poder comentar debes estar [registrado](#)

### Añadir comentario

Iniciar sesión con [f](#) [dv](#) : [Regístrate](#)



Escriba su comentario.

La actualización en tiempo real está **pausada**. [\(Continuar\)](#)


Mostrando **0 comentarios**

Ordenar por: los más recientes primero

[Suscríbete por e-mail](#) [RSS](#)

## CULTURA

### Clip en exclusiva de 'Promoción fantasma'



Desaprendí a tener que negociar mis condiciones.



Sidrerías , Gran Hermano , Premios Goya , vacaciones , Los Oscars , Restaurantes Gipuzkoa , Entrevi , Gastronomía , Famosos , revistas del corazón , Televisión , Cine , Música , Tráfico País Vasco

#### LO MÁS VISTO

- Todo el viernes a bajo cero en el inter...
- El 'gancho' del sexo para fomentar el u...
- «Tenía todos los huesos de la nariz hec...
- «Hemos encontrado un bebé en una bolsa»...
- Los sueldos en el Ayuntamiento de Eibar...
- Aquí nadie se chupa el dedo...
- En Champions desde noviembre...
- María José Galera se desnuda para 'Inte...
- «El secreto está en quererse»...
- Los castigos de 'Mbu'...
- Exigen a Pasaia que prohíba regalar pec...
- ¿Y si le pasa a Ronaldo?...

#### LO MÁS COMENTADO

LO ÚLTIMO DE DIARIOVASCO.COM

NOTICIAS AL MINUTO (AGENCIAS)

vocento  
Powered by SARENET

diariovasco.com

© Copyright DIARIOVASCO.COM DIGITAL VASCA, S.L.U.  
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 1.786, Folio 141, Sección 8ª, Hoja SS-16552, Inscripción 1ª C.I.F.: B20677878  
Domicilio social en Camino de Fortuetxe, 2 San Sebastián 20018  
Correo electrónico de contacto [contactanos@diariovasco.com](mailto:contactanos@diariovasco.com)  
Copyright © Digital Vasca S.L. , San Sebastián. , 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:  
Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

[Contactar](#) | [Mapa Web](#) | [Aviso legal](#) | [Política de privacidad](#) | [Publicidad](#) | [Master El Correo](#)

#### ENLACES VOCENTO

ABC.es  
El Correo  
elnortedecastilla.es  
Elcomercio.es  
SUR.es  
Qué.es  
La Voz Digital  
Punto Radio  
hoyCinema  
Infoempleo  
Autocasión

Hby Digital  
La Rioja.com  
DiarioVasco.com  
Ideal digital  
Las Provincias  
El Diario Montañés  
Laverdad.es  
Finanzas y planes de hoyMotor  
Guía TV  
11870.com